



BARREN

TOKIKOM

**Jo eta sua santanetan**



barrena 11. EIBAR

garajesGarcia.com

KUPOI HONEKIN

**%10ko**  
deskontua  
filtroetan



www.garajesgarcia.com  
g.garcia@garajesgarcia.com

Erabazteko: 943 820 697

Lantegiko: 943 202 214

943 127 271

9.000€



BMW 329 D MAN

Motorea: 2.0 cm3 Diesel

Kilometroak: 200.000

Egoera: Erabilia

2.800€



HONDA ACCORD 2.0 i TCD

Motorea: 2.0 cm3 1 TD Diesel

Kilometroak: 300.000

Egoera: Erabilia

14.800 €



AUDI A4 TDI 2.0 DPF 143

Motorea: 2000 cm3 TDI Diesel

Kilometroak: 90.000

Egoera: Erabilia

11.500€



CITROËN DS3 1.6 VTE SPECIAL EDITION 129

Motorea: 1.6 cm3 VTE Gasolina

Kilometroak: 115.000

Egoera: Erabilia

26.000€



HONDA CRV ELEGANCE

Motorea: 2.2 l-cm3 Diesel

Kilometroak: 100.000

Egoera: Erabilia

4.000€ transferentzia barne.



BMW 525 D

Urtea: 2002

Kilometroak: Kontualata

# Badatoz sanbartolomeak!

Barrenen publizitatea jartzeko:

943 744 112 edo [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)



BARREN



**JATETXEA**

Santa Ana Kalea, 10 beheka

943 254 232



**TXIKI EGUNA** menua

Entsalada Mistoa  
Txanpiñoi errebueltoa

Txahal gisatua  
edo  
Zapo buztana saltsan

Ogia eta postrea


**18€**

Abuztu osoa zabalik  
San Bartolome  
jaietako edozein egunetan  
zure menua zure neurria!





NORA KORTABERRIA



***“Lotsatzen zaituena egin, beldurra ematen dizun hori egitera ausartu. Emaitzak onak ez badira, aurkituko diegu konponbidea!”***

**K**aixo Nerea! Zer moduz? Oporretan jada? Gaur udarari buruz pentsatzen hasi naiz. Beti iruditu zait luzea, baina ez astuna, baizik eta berezia. Dena dela, urteko sasoi bakoitzean ezberdin ikusten dut. Udazkenean urruti dago, negua denean infinitua da, udaberrian amesteko unea da, eta udaran espektatibaz betea dago. Espektatiba horiek errutinatik ateratzen gaituzte, eta beraz, ihes egiteko unea da askorentzat, benetan gustatzen zaiguna egiteko unea, alegia. Eta une horretan bertan hasten gara gozatzen, *oporretan* gaudenean. Baina oporren zain egon behar al gara horretarako? Benetan gozatzeko? Zergatik ez dugu errutina ezabatzen eta egunerokoa bizitzen? Orain Errusian nago, hoteleko pasilloan zuri, Nerea, eta gure irakurleei idazten. Munduko Txapelketa dela eta nago hemen, inoiz imajinatu ezin nezakeen zerbait jokatzeko, eta eskubaloia mundu hau ere errutina bihurtu zait azkeneko hilabete honetan. Nolanahi ere, noizean

behin nire buruari galdetu diot ea zaletasuna errutina bihurtu nahi dudan. Izan ere, errutina hitza betikoarekin, aspergariarekin, lotzen dut, eta ez dut nahi bizitzen ari naizena bizi eta kitto, honetaz gozatu nahi dut, kontziente izaten. Horregatik, nire *konfort zonatik* ateratzen hasi naiz. Aurten ikasi dudan zerbait da, eta guztioi gomendatzen dizuet, mundu berri bat aurkitu dut eta. Lotsa? Beldurra? Hauek dira errutinara bideratzen gaituzten faktoreak, eta alde batera uzteko horren zailak diren emozioak, aldi berean. Nire aholkua? Lotsatzen zaituena egin, beldurra ematen dizun hori egitera ausartu, eta ondoren, emaitzak onak ez badira, aurkituko diegu konponbidea! Ikasteko gaude eta!

Baina tira, esatea erraza da, *ridikulo* famatua beti baitugu gu itsutu nahian. Cupido bat dirudi, gu errutinaz maitemintzera behartzen ari dena. Zure kasuan, Nerea, oso maiteminduta al zaude?



NEREA GURRUTXAGA



***“Segurtasuna ematen digu ezaguna denak; konfort gunetik irteteak, beldurra eta irrika”***

**K**aixo, Nora! Arrazoi duzu gauza batean, uda berezia da eta errutinatik irteteko aukera edo aitzakia da guretzat, nire kasuan lan egin behar dudan arren. Errutinaz aritu zara, eta zuk Errusian bezala, nik ere bidaiatzearekin lotzen dut egunerokotasunetik irtete hori. Txilen egon nintzen sei hilabeteetan esaterako, sentsazio hori bizitzeko aukera izan nuen. Horren inguruan hitz egin nuen Alemanian egon zen lagun batekin, eta hark esaten zidana egia da; kanpora zoazenean, egunero zerbaitetik eteten du errutina hori: lagun berri bat egiteak, hitz berri bat ikasteak edo zapora berri bat dastatzeak, esaterako. Eta nire lagunak ondo deskribatu zuen bezala, sentsazio horrek nolabaiteko menpekotasuna sortzen du, eta badago jendea hori askatu ezinik bizi dena, etengabe bizilekuz aldatzeko beharra duena asetuta egoteko. Izan ere, aldaketa handiak eman arren, beti dugu errutina berriak sortzeko tendentzia, eta hasieran berezia zaiguna ohikoa bihurtzen da sarritan. Horregatik errutinaz gozatzen ere ikasi behar dugula uste dut, eta egunerokotasunean ditugun plazer txikiak baloratzen. Badakit topiko hutsa izan daite-

keela, baina azken finean, nik Txileko egonalditik honen falta sentitzen dut, eguneroko gauzena: kale izkinako dendatxoa, *empanada* beroen usaina, edo ostiraleroko tabernako *cumbia* doinuak. Hala ere, bueltan nator zuk esandakora, hau da, errutinatik irtetea beharrezkoa dela berau baloratu ahal izateko. Zein erraza ematen duen, ezta? Askotan kexatzen gara egunerokotasunaz, baina ez gara kapazak kafea hartzen dugun tabernaz aldatzeko ere. Gero harro esango dugu nola ibili garen motxilero planean, noranzko zehatzik gabe, lagun berriak eginez, baina herrira bueltatzean ez pentsa autobusean albokoarekin hitz egingo dugunik edo poteoko ibilbidea aldatzeko asmorik izango dugunik. Segurtasuna ematen digu ezaguna denak, eta zuk esan bezala, konfort gunetik irteteak, beldurra eta irrika. Bien arteko oreka aurkitzea bakoitzaren lana da, beraz, zuk segi Errusiako egunerokotasunaz gozatzen, nik bien bitartean lanera bidean irratiko emisora ezberdin bat entzunez hasiko dut astea, ea zer gertatzen den!



Egunotan eskuartean dudan liburuak ekarri dit gogora behin irakurri nuen istoriotxo. 1985ean argitaratu zen Joseba Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa*, testu motzez osaturiko liburua: pentsamenduak, saiakerak, isto-

rio motzak eta artikulua aurki daitezke bertan, besteak beste. Etengabeak dira Sarrik euskarari eginiko erreferentziak, eta euskal hitzak erabiliz egiten diren lotura bitxiez oroitu nintzen irakurtzen ari nintzela. "Zein lotura?" Galdetuko diozue seguraski zeuen buruari.

Kasualitatez edo kausalitatez, Sarrik berak (oker ez banabil) *Euskaldunon Egunkaria*-rako idatziriko artikulua bati buruz ari naiz. Gurasoak erbestean zeudela jaiotako neskatxa batek egi-

## Loturak

niko lotura du hizpide istoriotxoak. Euskaraz aritzen zen neskatila gurasoekin; erdaraz, aldiz, kalean, eskolan, lagunekin. Euskaldunak ziren etxean; *euskaldun* izateak, ordea, ez zuen itzulpenik tokiko erdaran, eta horrek nolabaiteko ezinegona sortzen zion nes-kari. Behin, ispilu aurrean amarekin ezpainak margotzen ari zela, hara non esan zuen:

- Gu espainolak gara?
  - Zergatik? -harritu ziren gurasoak.
  - Ezpainak margotzen ari garelako.
- Lotura bitxiak, eta bitxiak diren loturak.

*"Etengabeak dira Sarrik euskarari eginiko erreferentziak, eta euskal hitzak erabiliz egiten diren lotura bitxiez oroitu nintzen irakurtzen ari nintzela"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskal Leuzakom: Irizpenean

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Irizia, Zozaok Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegui, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► MEMORIA PIXKA BAT EGINEZ

Ekainaren 29an *El Diario Vasco* egunkarian proiektoreaz eta aire libreko zineaz argitaratutako artikula delata eta, gogora ekarri nahiko nuke Santolayak Odeon zinema zaharreko bi proiektore eman zizkiola Udalari.

Bietako bat urteetan erabili zuten Herriko Antzokian, proiektzio-sistema digitalizatu zen arte. Beste proiektorea ez zebilen eta matxuratuta eta botata zegoen. Ongarri zine-klubak Santolayarekin hitz egin zuen eta bere oniritzia eman zigun. Horrez gain, Elgoibarko udalbatzarekin hitz egin ondoren, ados jarri ginen: proiektorea konpontzen bagenuen, zine-klubaren kontua izango zen. Horrela sortu zen aire libreko zinearen ideia, eta horrexegatik aire libreko zinea ez da zeuena, Udaleko jaun-andreak.

Pista Beltzeko lokal batean, hilabete askotako lanaren ostean, proiektorea martxan jartzea lortu genuen. Lokalak argindarrik ez zuenez, Udalak laguntako konpresore baten laguntza behar izan genuen. Konpresoreak sortutako kearen ondorioz ahoan zapiak lotuta lan egin behar izan genuen, gailuak lokal barruan ke asko eragiten zuen eta. Baina azkenean, lortu genuen orain arte aire libreko zine emanaldietan erabili den proiektorea martxan jartzea.

Oroitzapenekin jarraituz, Udalari esan behar diot aparailu hori aire libreko zinema erabiltzen duten moduan erabiltzen duela, atean ostikada bat emanaz zine-klubaren lokaletik kendu ziguten eta.

Lerro hauen bidez, alderdi politiko guztiei gogorarazi nahi diet haietako batek ere ez zuela eta inoiz ez duela Ongarri zine-klubaren alde aurpegia eman bidegabekeria horren ostean, nahiz eta Elgoibarko kultura kolektibo

bat izan eta, izate hutsagatik bakarrik, errespetua merezi zuela pentsatzen dudan arren.

Kultura Sailari ere gogorarazi nahi diot gauzak ez direla modu horretan egiten.

Iñaki San Martin

### ► BI AUZO, BI JARRERA

Bejondeiola! Bejondeiola San Pedroko alkate berriari. Bejondeiola, Musutruk lan egiten duen jendearekin esker oneko izateagatik. Bejondeiola, lana egin duenari eskerrak emateagatik, gizon ala emakume izan.

Patroiaren eguneko meza bukaeran auzotarren izenean eskerrak eman zizkien aurreko alkateari, Don Benantziori, beronek ezin duenean ordezkatzeko duen Maria Angelesi igandeko zerbitzua emateagatik eta beronen senarrari igandeko taxista lanak egiteagatik.

San Migelen auzotarren egunean merezitako omenaldia egin zioten Don Benantziori, auzoari emandako zerbitzuagatik eskerrak emanez, baina igandero zerbitzu horretan laguntzen duten auzoko emakumez auzoko alkateak auzotarren aurrean hitz erdirik ere ez.

Bistan da batzuentzat "berdintasuna" hitzetik hortzera erabiltzen den hitz eder bat baino ez dela.

K.L.

### ► NOIZ ARTE?

Gaztelekua zabaldu zutenetik han ondoan bizi garenok, urtero eduki ditugu arazoak (zaratak, apurtutako gauzak...). Baina azken hilabete hauetan ikusi duguna lotsagarria iruditzen zait. Astero-astero, 14-16 urteko talde bat ibiltzen da Gazteleku kanpoan erretzen, eta ez bakarrik tabakoa. Askotan pasatuta egoten dira, zarataka, baloi-kadak ematen Gaztelekuko baloiekin eta batzuetan larruzko baloiekin (debe-

katuta dagoena, kartela ere badago) eta zer edo zer esaten badiezu, mehatxuka hasten dira. Gaztelekuko hezitzaileak abisatuta daude, badakite zeintzuk diren gazte hauek, eta orain dela hilabete bat Udalari abisua pasatu zietela esan zidaten.

Baina arazoak hor jarraitzen du. Noiz arte?

A.A.

### ► OHARRA

Eskuartearen opor aurreko azken alea duzu. Uztaileko azken bi asteak santolomeetako astekari berezia prestatzen emango ditugu, eta abuztuaren 23an jasoko duzue ale hori. Ordura arte, ondo pasa!

BARREN

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzue:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birakoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelekar datoren eskutitz argitaratuko.

## Debegesak gazteen enplegua sustatzeko egitasmoa jarri du abian, eta Elgoibarko Udalak enpresa berriak sortzeko laguntza-programa

**H**azilan programaren bigarren edizioa jarri du abian Debegesak. Garapen agentziaren arabera, gazteen laneratzeko sustatzeko egitasmoaren lehen edizioa "arrakastatsua" izan zen. Lehen edizioan parte hartu duten hamahiru lagunek lan-kontratua edo lan-praktikak lortu dituzte lan-arlo ezberdinetan.

Irailean hasiko da Hazilan egitasmoaren bigarren edizioa. Parte hartzeko interesa duten gazteek *debegesa.eu* webgunearen bitartez eman dezakete izena. Hazilan proiektua goi mailako ikasketak dituzten (unibertsitate titulua edo goi mailako prestakuntza zikloa) eta lana aurkitu ezinik dabilzan 20 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago.

Debegesak aukeraketa prozesu bat egingo du baldintzak betetzen dituzten hautaga guztien artean. Horretarako curriculumak aztertu eta elkarrizketak egingo ditu. Aukeratuek formazio pertsonalizatua jasoko dute, euren gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzeko. Gainera, praktikak egingo dituzte edo proiekturen bat garatuko dute, modu horretan lan munduko errealitatea gertutik ezagutzeko.



Arg.: Eta Kitto!

### Elgoibar Ekinean

Bestalde, Elgoibar Ekinean laguntza-programa jarri du abian Udalak, enpresa jarduera berriak bultzatzeko. Ostalaritza alorrean izan ezik, gainerako alorretan enpresaren bat osatzen duten eta oinarri arautuetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira onuradunak.

Laguntza jasotzeko, proiektuko kide batek gutxienez langabezian egon be-

harko du, eta enplegu garbiaren sorreran eragina izango duen lanpostu bat sortu beharko du. Lantokia eta egoitza soziala eta fiskala Elgoibarren kokatu beharko dira.

Laguntza-programa honetarako aurrekontua 15.000 eurokoa da. Proiektu bakoitzak gehienez 5.000 euro jasoko ditu (industria alorrekoa ez bada, 2.000 euro). Laguntza eskatzeko epea azaroaren 30ean amaituko da.

## Zizilongo pasabide zaharra kendu dute berria jarri ahal izateko



Barixakuan Zizilongo pasabide zaharra eraitsi zuten. Lanak 22:00etan hasi arren, 06:00ak arte luzatu ziren. Zatika desmuntatu zuten pasabidea, ebakitzeko soldagailuak erabiliz. Pasabide zatiak garabiak erretiratzen zituen gero. Pasabide berria martxan egon artean, oinezkoek behinbehineko semaforodun zebra-bidetik zeharkatu beharko dute errepidea.

## Asteleheneko istripuak Sigma auzoko irteeraren arriskua laga du agerian

Sigma auzotik N-634 errepidera irten behar zuen Citroen Picasso batek errepidean zihoan BMW bat jo zuen astelehen arratsaldean. Picasso autoa Eibarko noranzkoan ari zen auzotik irteten eta BMW autoa ere Eibarko noranzkoan zihoan N-634tik. Lekukoaren arabera, kolpe gogorra izan zen.

Picasso barruan bidaiari bakarra zegoen, eta suhiltzailerek atera behar izan zuten, kolpearen eraginez kateatuta gelditu zen eta.

Istripuak agerian laga du Sigma auzotik irteteko automobileren duten zailtasuna. "Irteera oso-oso txarra daukagu errepidera.



Pasada bat da. Bidea egin behar dutela etxeen atzetik diote, eta errotonda bat hemen goian. Baina noiz?", kexatu da Sigma auzoko bizilagun bat istripuaren berri izan bezain laster.

Bestalde, aurreko barixakuan beste istripu ikusgarri bat gertatu zen Elgoibarren, kasu honetan AP-8 autopistan, Erretsundiko zubi azpian. Kamioiak artaziarena egin eta karga galdu zuen. Ondorioz, auto pilaketa luzeak eragin zituen bi noranzkoetan. Albisteak jakin bezain laster elgoibartar asko Erretsundi aldera joan ziren istripua bertatik bertara ikusteko.

## Estatuko hainbat lekutatik Elgoibarrera auzolanean



Uztaileko auzolanean Estatuko hainbat lekutatik etorritako hamasei gazte ari dira. Alde batetik, PR-GI 156 mendibibildetan orientatzeko balizatua aztertu eta hobetzen ari dira, Morkaiko Mendizale Elkartearen bazkide batzuen lankidetzarekin. Bestetik, Pedro Mugurutzako eskola zaharrean lokal bat margotzen ari dira, herriko elkarteek egingo duten erabilerara egokitzeko. Hormak prestatu eta grafiti bat egin ari dira. Hilaren 18ra arte egongo dira Elgoibarren.

Hilaren 19an jasoko dute Elgoibarko eta Mendaroko baserrietako artilea

Debemen elkarteak artilea biltzeko zerbitzua martxan jarri zuen iaz. Aurten, bilketa uztailean egingo da, hilaren 19an.

Auzokideek aurreko egunean (arratsaldez) laga beharko dute artilea plastiko bilketa egiten den leku berean: Ermuarango auzokideek Plazan edo Madariagako bidegurutzera eraman beharko dute; Urruzunokoen, beheko bidegurutzera; Aiastiakoek, Metalkuara edo plazako edukiontzien ondora; San Antolingoek, poligonora; San Rokekoek, plazara; eta Idotorbeokoen, edukiontzien ondora.

Mendaron ere uztailearen 19an jasoko dute. Artilea bezperan laga beharko da Plaza Auzoan, autopistako zubi azpian.

**m mendaro**  
ikastola

Kilimon, 2  
Tel.: 943 756 141



MENDARO  
IKASTOLAKO  
TXOKOLOREN  
PARTEZ ONDO  
PASA JAİETAN!

\*\*\*\*\*

# LANDA

## ERRETEGIA

*Ondo pasatu  
jaietan!!*

\*\*\*\*\*

Garagartza, 32 · MENDARO  
☎ 943 75 60 28



# IRIONDO

[www.iriondo.com](http://www.iriondo.com)

*Jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!*



electricidad  
**PEROSANZ**

[www.electricidadperosanz.com](http://www.electricidadperosanz.com)  
[eibar@electricidadperosanz.com](mailto:eibar@electricidadperosanz.com)

Ibargain 17, AC behea  
Tel.: 943 202 268  
Faxa: 943 206 045  
20600 EIBAR

Herriko Enparantza 5  
Tel.: 943 033 535  
20850 MENDARO



Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)  
Tel.: 943 75 60 44  
Faxa: 943 75 60 37  
Mugikorra: 628 529 692  
E-mail: [pagoerota@pagoerrotaiturgintza.com](mailto:pagoerota@pagoerrotaiturgintza.com)  
[www.pagoerrotaiturgintza.com](http://www.pagoerrotaiturgintza.com)

## PAGOERROTA ITURGINTZA

- ☀ Iturgintza
- ☀ Sukalde eta bainuen proiektuak
- ☀ Igeltseritza
- ☀ Berogailuak
- ☀ Gasa



**Ondo  
pasa  
jaixetan!**

## AUTOZERBITZUA

# ELKAR

**COVIRAN**



Kilimon Hiribidea, 5 behea - 20850 MENDARO  
Tel.: 943 530 072 - Faxa: 943 530 073





# mendaro jaietan 2016



## UZTAILAK 24, DOMEKA

### Zahartzaroari Omen eta Haurren Eguna

**11:00** Elgoibarko dultzainero taldearen kalejira.

**11:00** Gaztetxoeren pintura lehiaketa, Haur eta Lehen Hez-kuntzako umeentzat. Gaia: Mendaroko jaiak. Ikastolako jolastokian.

**11:30** Haurrentzako jolasak. Ikastolako jolastokian.

**12:00** Meza nagusia. Pilotalekuan.

**Ondoren**, Euskal dantzak, Mendaroko trikitixa talde-aren eskutik.

Jarraian, Txu-Txu tren (omenduek frontoitik Aizpera bertan joateko lehenetsuna).

**14:00** Gaztetxoeren bazkaria. Ikastolako jolastokian. (Bakoitzak bere bazkaria eta Udalak edariak eta fruta)

**Ondoren**, Haurrentzat jolasak. Ikastolako jolastokian.

**14:00** Omenduen bazkaria. Aizpe elkartean.

**16:00** Txu-Txu tren (omenduek Aizpetik Herriko Enparantzara itzultzeko lehenetsuna).

**18:00** Haur danborrada, Bizi Poza txarangak alaituta.

**20:00** Sardina freskue, parranda, jolasa eta dantza ikuskizuna. Herriko Enparantzan.

**Ondoren**, Gaztetxoeren pintura lehiaketako sari bana-keta.

**23:00** Korrontzi taldearen musika eta dantza ikuski-zuna. Goñati pilotalekuan.

**Jarraian**, Kontzertua: Melissa and The Jacks taldea.

## UZTAILAK 22, BARIKAKUA

**18:00** Arropa etiketen eraskusketa. Maite Mariskurrenak egin-dako bilduma. 22tik 26ra. 12:00/14:00 eta 18:00/20:00. Lagun Betikoak elkartean.

**18:30** Salbea azpilgoetako elizan. Udaletxetik bertarako ibilbi-dea, txistulariekin.

**19:30** Txupinazoa udaletxeko balkoitik, Bizi-Poza txarangak bo-tata. Kanean txarangak alaituta eta Katasorginaren jaitisiera.

**Ondoren**, Kalejira txaranga eta buruhandiekin.

**20:00** Santanetara ongi-etorria emateko ekitaldia 2015ean jai-otako mendaroarrei. Udaletxeko udalbatzen aretoan.

**23:30** Gala gaua. Dantzaldia Lisker taldearekin.

**Jarraian**, Diskoteka: DJ Xabi.

## UZTAILAK 23, ZAPATUA

### Kuadrillen Eguna

**12:00** Goiti-beheren txapelketa, Bizi Poza txarangak alaituta. Az-pilgoetako elizatik.

**13:00** Paella lehiaketa. Frontoian. Izen ematea: Uztargi, Aitz Beltz eta Menditxon.

**14:30** Herri bazkaria.

**Ondoren**, koadrilen arteko jolasak.

**18:00** Motxaila Band elektrotxarangaren kalejira.

**23:00** Kuadrillen arteko playback lehiaketa eta sari banaketa.

**00:00** Kontzertua: Ze esatek.

**Ondoren**, Diskofesta: DJ Lego.

## UZTAILAK 25 ASTELEHENA

### Santixao Eguna

**11:30** Mendaroko txistulariekin kalejira.

**12:00** Meza nagusia. Garagartzako elizan.

**12:30** Gaztetxoeren pilota partidak, Mendaroko Esku Pilota Esko-laren eskutik.

**16:30** Free style bizikleta erakustaldia. Juanda De la Peña, Va-lentziako Trial a Trasera elkartetik. Mendarozabalen.

**18:30** Kalejira Bizi poza txaranga eta buruhandiekin.

**22:30** Nagusien danborrada Elgoibarko Mausitxa txarangare-kin.

**Ondoren**, Diskoteka: DJ Andoni.

## UZTAILAK 26, MARTITZENA

### Santana Eguna

**10:30** Prozesioa txistulariekin. Azpilgoetatik Santanara.

**11:00** Meza nagusia. Santanako ermitan.

**Ondoren**, Erromeria: Ostolaza eta Andonegi trikitilariak, eta Li-zaso eta Egaña bertsolariak.

**18:00** Herri kirolak: Gipuzkoako I. mailako aizkolaria txapelke-tako finala. Iñaki Azurmendi Peñagarikano, Mikel Larrañaga El-garresta, Ugaitz Mugerza Mendizabal, Xabier Orbeagozo Aginagalde Arria V eta (Olasagastiren ordezkoa oraindik zehaztu gabe).

**19:30** Dantzaldia: Ezten Giro taldea

**22:30** Katasorginaren goera eta azken traka.

# Jaietan ere, ezezkoa beti ezezko



**Mendaroko jaiak ate joka datoz eta emakume zein gizonezko guztiak daude festarako gogoarekin. Gogoa jai egiteko, bai, baina batean eta bestean emakumeen kontrako sexu erasoek beldurra eragiten badute ere, beldur hori uxatzeko, jaiari lasai ekiteko eta hori aldarrikatzeko asmoz, Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak, Santa Ana jaietako programan horri buruzko agiri bat kaleratu du, baita herrian hainbat kartel ipini ere. Gainera, jaietan horrelako jarrerarik gertatzen den ikusteko behaketa egingo dute. Jaiak denek izanik guztiak modu berean parte hartu behar dutela erakutsi behar da, bai antolatzen eta baita gozatzen ere.**

-IRATI AGIRREAZALDEGI -

Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldea Gasteizen gertatu zen hilketa batek (emakumezkoa hil eta umea leihotik bota zueneko hark) jarri zuen abian. Hilketa horien azpian errotutako sistema bat dagoela eta horren funtzionamendua zaindu behar dela ikusita elkartu ziren hainbat mendarotar, 50 lagun inguru. Emakumeen hilketak eta sexu erasoak izaten direnean elkarretaratzeko eta bestelako jarduerak egin arren, jaietan ere gaiari heltzea pentsatu zuten. "Alkoholaren aitzakian eta jaiak gehiegikeriak egiteko direla pentsatuz, normalean pasatzen ez diren gauzak gerta litezke eta jaiak aprobeztatu nahi ditugu beste edozein larunbat gauean ohikoak diren hainbat jarrera onargarriak ez direla ikusarazteko. Askotan esaten da: horrela jantzi gero, horrelako dantzetan arituz gero... eskatzen ari zara.. Beraz, emakumezkoek ikusarazi nahi diegu ez dagoela horrelako jarrerak zertan onartu", azaldu du Edurne Izagirre taldekideak.

"Taldekideei arriskutsuak iruditzen zaizkigu hainbat *tranpa*, askotan erabiltzen direnak: jarrera dela, janzkera dela, *bila etorri zara eta orain zergatik esaten didazu ezetz* bezalako esaldiak. Erasoa konturatu ere egin gabe jasaten dugu, erregistratu gabe edo gure buruari onartu gabe besteek zerbait esango dutelakoan, mutil harekin ikusi nautelako, sinetsiko ote didaten ala ez; kontuan

hartuko duten ala ez, zenbaterainokoa izan behar den erasotzat hartzeko...". Beraz, taldekoek honako mezua zabaldu nahi dute: "norbanako bat ezeroso sentitzen denean ez da gozameneko harreman bat, ez da ondo pasatzea eta edozein momentutan senti daiteke hori eta gelditzeko eskubidea izan behar da". Argi utzi nahi dute herritar eta ez herritar, Mendarora festara etortzen den guztiak lasai eta askatasunez disfrutatzeke eskubidea izan behar dutela. "Jaietan erlaxatu eta gozatu egin behar dugu, baina denok. Norberak ondo pasatzeak ezin du mugarik pasa besteari eragiten dion momentuan. Norbere buruarekin egiten dena norbere esku dago", dio Edurne Izagirrek.

Mugak, ordea, sexu kontuetan emakumeei bakarrik jartzen zaiela dirudi, Izagirreren ustez. "San Ferminetan neskek titi bistan eta mutilak haiek ukitzen agertzen diren argazkiak dira besteak beste horren erakusle. Sexualitatea badirudi gizonen kontua baino ez dela, eta emakume bat titi bistan ikusiz gero ezin dietela beraien buruari eutsi; eta mutilek kamiseta kenduz gero neskek ez al dute ezer sentitzen?", galdetu du. Horrelako gaiak islatzen dira batik bat baina ezkutukoa azalera ekarri nahi dute Mendaron.

Emakume baten eraiketa bat gertatzen denean nola erantzun adierazteko protokoloa ezarria dute, eta Udala ere inplikatu da



horretan. Jaietan sexu erasoak gertatuz gero, nola jokatu ere landuko dute. "Aurten kanpaina egin nahi izan dugu jaietan zer zaindu behar den jakinarazteko eta jendearen jokaeren behaketa ere egin nahi dugu, horren arabera zer egin pentsatzeko", adierazi du taldekideak. Hala ere, erasorik edo arazo larririk gertatuz gero taldeak ez du aginterik edo ahalmenik gai horri aurre egiteko, beraz, ohiko telefonoetara deitu edo martxan dauden errekursoetara jo beharko dute. "Gu aurtengo jaietan behatzaile egon arren, dena ez dugu ikusiko, baina norbait larri egon eta ezagutuz gero gugana jo dezake eta guk ere lagunduko dugu".

### KARTELA ETA PHOTOCALL-A

Egitarauan kaleratutako betebeharrak zerrenda horrez gain, kartel bat ere prestatu du taldeak jaietarako apropos. Bertan adierazi nahi izan dute baiezko garbia ez den guztia ezezkia dela eta "erreparatu behar dugu bestea nola ikusten dugun, gurekin batera gozaten ikusten dugun ala ez". Bestalde, photocall bat jarriko dute karpatxo batean, seguru asko plazan, mezu hauek jaiaren parte izateko. "Ez dira sexu erasoen inguruko mezuek bakarrik izango, oro har jaietan guztiok parte hartzeari buruzkoak baizik. Ikusarazteko gai hori dagoela", esan du Edurne Izagirrek.

Erasoak jai egunetan gertatzen dira gertatzekotan, baina jaien antolaketan ere erreparatu behar zaio gizon eta emakumeen arteko parekidetasunari buruz taldearen ustez. "Tradizioaren aitzakian badira naturalizat edo ohikotzat hartzen diren gauzak, baina hori pixkanaka egin beharreko aldaketa prozesua da. Udalaren aldetik ikusi dugu interesa gai honetaz hitz egiteko, baina Mendaro herri txikia izanik zenbait gauza tradizioz jarrita daude eta kitto: aizkora finala gizonetzkoena da, baina hori kentzea gehiegizkoa da askorentzat; bertsolariak ere Lizaso eta Egaña, bestela askorentzat badirudi ez direla existitzen nahiz eta urteren batean emakumezkoak ere ekarri. Badago erresistentzia zenbait arlotan. Jaietan sistema patriarkal hori oraindik agerian gelditzen da. Esaterako, Sagardo lehiaketako epaimahairako gonbidapena egin



omen diete emakume dezenteri, baina eta ez dute beraien burua ikusten eszenatoki gainean epaile. Hori belaualdiz belaualdi eta lan asko eginda alda genezake". Aurtengo jaiak antolatzeko batzorde irekiak egin diren arren ez dira taldeko kideak bertan egon taldean hasi berriak baitira. "Jaien inguruan eztabaidatzen hasi ginenea jai batzordeak ibilbide bat egin zeukan eta jendarte batek egindako lana moldatzen hastea ez genuen uste egokia zenik. Helburua izango da hurrengo urtean jaien batzordean gure taldeko ordezkariaren batzuk egotea eta hor eztabaida sortzea: partehartzea, zer moldatu...".

Aurten, bada, lehen pausoa emango du Mendaroko Tratu Onen Aldeko taldeak: jaien ahalik eta irudirik onena ateratzea photocall-ean, jai giroan batek ondo pasatzeak besteari mugarik ez diola eragin behar adieraziz eta emakume zein gizonetzko erasorik gabe guztiek jaietan gozatzuz.

## Eraso sexistarik gabeko jai parekideen alde

Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak honako argibideak kaleratu ditu jaietako egitarauan:

- 1. Erasotzea da:** Gogaikarria eta astuna izatea ez da ligatzea; disimuluan ukitzea, bestearen gorputzari buruzko komentarioak egitea, sexua izateko xantaia egitea, ezetza eman dizun hori iraintzea... erasotzea da.
- 2. Nire gorputza neurea da:** Nire janzkera, irribarrea edo dantzakera neure-neureak dira. Gozatzeko ire modua da hau, eta ez probokazioa.
- 3. Zeure buruarengan konfiantza izan:** Erasotzea egin dizu(te)la sentitu baduzu, ez izan zalantzarik: eraso jasan duzu.
- 4. Kaleak, gauak eta jaiak geureak ere badira! Parte hartu:** Neskak, emakumeak! Jaiak geureak ere badira!
- 5. Ondo pasa, baina ez zaituz pasa:** Besteekiko errespetuz, umorez,

bakoitzak bere erara, nahi duenarekin, askatasunean, eta inork epaitua izan gabe gozatzeko ida jaiak; nor bere burua arriskuan jarri gabe, sexu segurua izateko.

**6. Izan ekintzaile, herri parekide baten alde:** Jaiak parekideak izatea guztion ardura da, eraso bat ikusiz gero, ez isildu; laguna, auzokidea, herritarra gehiegikeriak egiten ikusten badituzu, kargu hartu! Ez laga! Ikusarazi lekuz kanpo dagoena bera dela.

**7. Sexu segurua:** Sexu-desira anitza da -lesbo, gay, trans, bi...- baita Mendaron ere! Utzi besteei nahi duten moduan gozatzeko. Ez ahaztu sexu segurua izaten: erabili beti preserbatiboak.

**8. Ez beti da ez:** Baietza ez den guztia ezetza da.

# “Mendaroko jaietako lepo-zapi pila bat dauzkat autoan eta etxean”

 **Andoni Egaña** BERTSOLARIA



Santa Ana Eguna, ermita barruan zein atarian bertsotan. Tabernatik tabernara, puntuz puntu ere ez da geldituko Andoni Egaña lotan. Bertsoa eta ziria bota batzuk modu dotorean izan arren lotsarazi eta beste batzuk gozaraztekotan, egun guztia ematen baitu Mendaron hortan. Mendarora etortzen dela urte bat gora bat behera, bada mende laurdena eta oraindik bere bertsoak adi entzuten egoten da jende dena, zaharrena eta gazteena. Andoni Egaña da mendararren artean bertsolaririk ezagunena aurten ere Santa Ana Egunez entzungo da bertsolari honek emateko duena.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

## ◆ Mendarora noiztik etortzen zara?

Urteak 25 inguru izango dira. Urtero zapi berde bat jartzen digute lepoan eta auskalo Mendaroko jaietako zenbat lepozapi izango ditudan autoan eta etxean, pila bat. Santa Anetan ez ezik beste zenbaitetan ere bertsotan egin izan dut Mendaron: Motxaila Egunean kantatu, Gaztetxean, Trinidadeko ermitan... Mendarora dezentetan joan izan naiz.

## ◆ Santa Ana jaiak, hala ere, bereziak al dira besteengandik?

Bai, heldu eta zahar, gazte eta ume, denak jaietarako gogo eta umore berdinarekin egoten dira eta oso festa polita izaten da. Mendaroko jaietako esanguratsua da oso. 11:00etako mezataria joaten gara bi bertsolari eta mezatan ia guk ematen dugu sermoia. Angel da hango apaiza eta hark sermoi laburra egiten du eta gero guri pasatzen digu txanda. Mezatan saiotxo bat egin ondoren, ermitaren kanpoko aldean beste saio bat luze edo serioxeagoa egiten dugu, baina beti ere



Santa Ana Egunean ermitako kanpo aldean kantatzen du Egañak, gehienetan Sebastian Lizasorekin.

gai librean. Gero, poteoa egoten da, poteo "salbaje" xamarra, 8-10 taberna, beraz, 8-10 txakolin bazkaritara joan aurretik. Bazkalostean batzuetan egin izan dugu bertsotan, baina azken urteotan ez dut uste. Izan ere, bazkaltzen 16:30ak 16:45ean hasi izan gara, beraz, batzuetan gelditzen gara eta bestetan ez.

♦ **Makina bat herritako jaietan ibiltzen zara bertsotan, udan batez ere. Mendaro ezberdina al da?**

Bereziak dira. 25 urtean segidan joan naizen herria da, behin baino gehiagotan urte askotan. Ez da izaten oholtzara igo eta egiten den saio hotz bat, baizik eta jendearekin eta tabernaz taberna, beraz, jendearekin harreman handiagoa egiten da. Mendaroko jende asko ezagutzen dut, garai batean gazte zirenak orain hain gazteak ez dira; umeak zirenak orain gazte. Dena dela umeak gutxiago ezagutzen ditut. Tabernaz taberna ibiltzen garenez, ikusi ikusten gaituzte, baina ez guk beraien ezagutzeko adina. Umeak bertso-

*"Bertsotan egitea ondo dago, baina jendearekin egotea eta herriarekin festa egitea ez dago gaizki"*

zaletzeko tokiak festak baino gehiago bertso-eskolak dira.

♦ **Ezagutu ez ezik mendarotarrei beraien zuzenean ere egiten diezu bertsotan. Nola hartzen dituzte zuek beraien botakoak?**

Ondo-ondo. Gaizki hartuz gero ez dauka erremediorik eta saiatzen gara minik eman gabe ziria sartzen. Gure "ofizioa" da hori. Mendarorrei ez ezik men-

darorrek ere kantatu izan dut, gazteren batzuekin, Aitzol Urainekin besteak beste. Mendaron zenbat eta bertsolari gehiago hobe, horrela agian elkarrekin egingo dugu bertsotan jaietan.

♦ **Bertsolariak parranda giroarekin lotzen dira askotan. Mendaro zuk ere giro horrekin lotzen duzu?**

Bai, bertsotan egitea ondo dago, baina jendearekin egotea eta herriarekin festa egitea ez dago gaizki. Santa Ana Eguna integrala izaten dela esango nuke eta Mendaron gertatu izan zait uste baino lehen eguna argitzea.

♦ **Hainbeste urtean Mendarora etorrita bizi izango zenituen anekdota bat baino gehiago, ezta?**

Anekdotak asko, baina gogoratu eta kontatzeko moduko bat esaterako, behin bertsotan ari ginela, Uxue Alberdi umea zela, bere gurasoekin-edo zebilen gure inguruan. Gerturatu zen eta ni nor nintzen esan zioten. Patrikan neraman, urtero Mendaroko taberna batean oparitzen di-



guten piruleta gorri bat eta hori Uxueri oparitu nion. Gerora berak esan izan dit piruleta hori gelan izan zuela egun pare batez, baina gero gosea nagusitu zitzaiola bere mitoak izateari eta jan

egin zuela.

♦ **Garai batean bertsolariak pribilejiatutzat hartzen zintuzten batik bat herri txikietako jaietara etorritakoan. Orain ere jendeak horrela hartzen zaitu?**

Andoni Egaña mendararra eta izen-abizen bereko bertsolari zarauztarra.

Lehenago garaietan salto handiagoa zegoen batzuetatik besteetara, ez bertso-tan bakarrik beste edozein bizitza arlotan ere. Orain sare sozialek, esaterako, berdinu egin gaituztela uste dut eta baita hurbildu ere. Orain denak berdinak gara, ez gaude koska bat gainetik. Gainera hori garrantzitsua da, ez da hona gainetik egotea.

♦ **Mendaron, bertso saio batean, zuk kantatu zenuen 'arnasik dugun artean etortzen segi nahi dugu'.**

Bai, eta hala da. Ahal dudan artean eta Mendarotik deitzen jarraitzen duten artean joango naiz. Baina herriak edo jendeak ni ez joatea erabakiz gero ni ez naiz joango eta kitto, ez dago arazorik.

## Santa Ana egun bat bertsoetan

Motxaila Egunaren bezperan bertso saioa izan zen Mendaroko San Agustin aretoan. Andoni Egaña han aritu zen oholtza gainean Agin Laburu, Oihana Bartra eta Alaia Martin bertsolariekin Iñigo Zubiaurre 'Beitxi'-ren esanetara. Mendaroarrak hainbeste aldiz entzun dute Egaña jaietan eta entzuleek jakin arren argi utzi zituen hiru bertsoetan Santa Ana jaietako ibilerak. Hirurak osorik lortu ez arren, hona hemen Santa Ana Egun baten laburpena bertsolari baten ahotik jasoak. Doinua: Habanera.

(...) gogoratzen naiz  
jarriko nuke matraila  
Santa Ana Eguneke  
txikiteoan metraila,  
txakolinaren gaziaz  
nahastu ohi zaigu urdaila.  
Zerbait gogoan degula  
horra gure abantaila.  
Goizez itsaso barea,  
ta iluntzean trapalla.  
Etortzen oso da errez,  
joatea oso zaila.



Goizeko hamarretakoa  
ta lehenengo imajina:  
Elgoibarren autopista  
han uzten degu jakina.  
Ordu hortan faltatzen da  
geroko argi urdina.  
Gero herria pasata  
Santa Anako jardina,  
aldapa hori igotzen  
eiten degu ahalegina,  
gero jaitsi ta ondoren  
txikiteoan zer grina  
hitzak nahasten ditugu ta  
ez da gauza atsegina:  
Txirristaka ta arrastaka  
ez al da gauza berdina?

Askotan pentsatu izan det:  
bertsolaritza ze gudu,  
nere buru brillantea  
sarri alkoholak galdu du.  
Bazkal aurretik Mendaron  
hamar txakolin seguru,  
bazkal ondoz lau patxaran  
bi gin tonic ta sei puru,  
gero eguna bukatzea  
guretzat a ze apuru.  
Osorik etxeratzea  
izanagatik helburu  
Mendaron eskeintzen dugu  
gure bihotz, gure buru.  
Arnasik dugun artean  
etortzen segi nahi dugu.



*Mendaroko Udalak  
Santana zoriontsuak opa dizkizue.*

## EGUNEKO ZENTROA ZUREKIN, S.L.




Maria Luisa Fernandez  
Nuria Ansuategi  
Fidel Ambrona

Azpilgoeta, 32 Tel.: 943 031 746  
20850 Mendara e-posta: zurekin@euskalnet.net

## TELLABIDE ITURGINTZA

Berogailuak  
Gasa  
Aire egokitasun  
Erregai likidoak

Mendaron zein  
Elgoibarren  
ematen dugu  
zerbitzua



Azpilgoeta 7 behea - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzatellabide@hotmail.com

*Ondo pasa jaietan!*

**lagun  
betikoak**  
OGITARTEKOAK - RAZIOAK - HANBURGESAK  
Herriko enparantza, 14  
Tel.: 943 755 024  
20850 MENDARA

## Mendaroko Haurreskola

Garagartza, 5  
943 755 219



*Ondo pasa jaietan!*

# Jaietan, musika doinuak nahi beste

## Ez galdu Korrontziren emanaldia

**K**orrontziren musika eta dantza ikuskizuna aurtengo Santanetan galdu ezin den emanaldi horietako bat dugu. Euskal musika tradizionalari ukitu modernoa ekarri dio Korrontzik. Mungiaiko taldeaz gozatzeko aukera domeka gauean izango dugu, 23:00etatik aurrera, Goñati pilotalekuan. Kontuan hartu taldea bere onenean dagoela: uztailean hamabi emanaldi dauzka programatuta zortzi herrialdetan! Hilaren 22an Hungariako Babel Sound Festibalen joko dute eta 23an Ingalaterrako Warwick Folk Festival jaialdian. Hurrengo egunean, Mendaron izango ditugu, dena emateko prest.



## Motxaila Band, herrian egurra emateko prest

Zapatuan, Kuadrillen Egunean, arratsaldeko txikite-orako plan martxosoa antolatu dute jai-egitarauan: Mendaroko Motxaila Band elektrotxarangaren kalejira. Azken aldia jo ta fuego dabilta hainbat jaietan. Santanetan herrian bertan egurra banatzeko aukera paregabea izango dute orain. Doinu ezagun batzuk jotzen hasi bezain laster, ez dute asko behar izango jendea dantzan segituan jartzeko.

## Festa eta parranda sortzera dator Ze Esatek!

Ze Esatek! taldeak helburu garbi bat izan ohi du beti-beti: kontzertua eskaintzen duten leketan festa eta parranda sortzea. Gehienetan lortzen dute euren asmoa betetzea, rock, reggae eta ska doinuak eskainiz. Beraz, argi ibili zaitezte zapatu gauean, Kuadrillen Egunean!

Trikizio, The Txortains, Skunk, Harlax eta Nuke taldeetan aritutako zenbait musikarik bat egin zuten proiektu honetan 2009an. Ordudanik, bost disko kaleratu ditu.





**MENDARO**

**ALBERTO**  
Arraindegia

Ondo pasa jaietan!

Tel.: 943 033 622 - Mugikorra: 600 440 255



**iraolagoitia**

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9 - 20850 Mendaro - Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
www.iraolagoitia.com

- Artisau aroztegia
- Etxe-aldaketa zerbitzua
- Salmenta eta banaketa
- Eskarmentua eta kalitatea

**LUZAIDE JATETXEA**

Mendarozabal z/g - Mendaro  
Tel.: 943 756 166

**Eguerdiko menuak 12€tan**

**Zapatu eta domeketan ere.**

Ondo pasa jaietan!

**XUMUXUA**  
Jatetxeak

**TAXI**

Kontxi Urain  
MENDARO

Mobila:  
**607 575 728**

**morroskillo**

Liburuak, loteria, tabakoak, opariak...

Tel.: 943 033 631  
Faxa: 943 755 235  
E-posta: morroskillodenda@hotmail.com  
Herriko Enparantza, 18  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

Ondo pasa jaietan!

**TXIRRISTAKA TABERNA**

1983

MENDAROSABAL | MENDARO

TEL: 943 756 169

Ondo pasa santanetan!

**S & P**

KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA CNCra AUTOMATIZAZIOA. ERREMINTA MAKINA BERRIA ETA BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.

**SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.**

ESSER Industrialdea BE-6 • 20860 Mendaro (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 741 656 / 639 710 183 • Faxa: 943 742 346  
www.santosypaxi.com • comercial@santosypaxi.com



Hego Afrikako Themba Njilo fundazioko dantza taldea.

## Nazioarteko Folklore Jaialdia 20:30ean izango da uztailaren 22an

Haritz Euskal Dantzari Taldeak antolatzen duen Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdia uztailaren 22an izango da eta 30 edizio beteko ditu aurten. Urte hauetan guztietan pila bat talde pasatu dira Olaizaga kiroldegiko eszenatokitik eta aurten Elgoibarko dantzari taldearekin batera Txile eta Hego Afrikako dantzariak arituko dira. Tokia ohikoa izan arren, aurten egingo dute aldaketarik antolatzaileek, izan ere, 22:30ean izan ordez 20:30ean hasiko da jaialdia.

Txiletik Temucoko Ballet Folklorikoa etorrikoa da. 1992tik aritu da beren naziotasuneko ezaugarriak biltzen. Izan ere, ezaugarri horiek mundu guztiak ulertzen duen hizkuntzaren bitartez zabaltzea du helburu, musika eta dantzaren bitartez, alegia. Taldean gazteak dira gehienak eta Txileko kulturaren aniztasuna ondoen erakusten duen balletetako da.

Hego Afrikakoa, berriz, Themba Nilo Fundazioko dantza tradizionalako taldea da. Kwa Zuluren eskualdean sortu eta inguruko ikaslez osatuta dago. Eskainiko duten ikuskizuna danbor afrikar eta abesti tradizionalekin (zulu jatorrikoak gehienak) lagunduko dute. Aipagarriak dira baita ere erakutsiko dituzten jantzi koloretsuak. Taldeak esperientzia handia dauka eta nazioartean zein Hego Afrika eta Europako hainbat tokitara eraman ditu herrialdeko dantza eta tradizioak, Estatu Batuetara zein Indonesiara besteak beste.

### Kalejira jaialdiaren aurretik

Haritz Euskal Dantzari Taldeak urtero parte hartzen du jaialdian eta aurten Gipuzkoako eta Arabako dantzak eskainiko dituzte.

Jaialdiaren ordua aurreratu dutenez, eguraldia lagun izanez gero, kalejira egingo dutela jakinarazi du Haritzek. Udaletxeko harrerara dantzako arropenkin joango dira dantzariak. Ondoren guztiak batera kalejiran joango dira Maialara, eta handik kiroldegira, jendea jaialdira erakartzeko asmoz.

## Argentinako Zingaros taldea martitzenean Kultur Etxeko sotoan

Martitzenean, uztailaren 19an, Zingaros-New Gypsy Tango taldeak kontzertua eskainiko du Kultur Etxeko Sotoan 20:00etan. Talde argentinarra Alejandro Montero, David Macchione eta Alex Garatek osatutakoa da, azken hau elgoibartarra, hainbat urtez Argentinan bizi dena. Europako bira batean Polonia, Alemania, Danimarka, Austria eta Eslovakia igaro ondoren, Euskal Herrian Gasteizen eta Ermua jo ondoren iritsiko da Elgoibarrera, Garateren jaioterrira. Europa ekialdeko motxailen pasio eta euforia doinuak tangoaren nostalgia eta malenkoniarekin uztartuz sortutako abestiak eskainiko dituzte ijitoen hizkuntzan edo errusiarrez abestuta, zein musika tresna hutsez. Gitarra joko du Alejandro Monterok, bibolina David Macchionek eta Alex Garatek akordeoia.



## Petti eta Inoren Ero Ni irailako Sotoko Hotsak jaialdian

Irailerako antolatu ohi du Sinusek Sotoko Hotsak jaialdia eta aurten 22an eta 23an izango da. Izenak berak dioen bezala Kultur Etxeko sotoan. Iragarpenaren arabera, kontzertuak egunean 22:30ean eta barixakuan 23:00etan egingo dituzte. Irailaren 22ko rock eta folk emanaldia Petti eta Etxeko Uztarena izango da; eta 23an Inoren Ero Ni taldeak post rock doinuak eskainiko ditu. Saio bakoitzerako sarrera 3 eurokoa da.

## Blues doinuak entzuteko aukera izango da uztailaren 23an Maalako parkean

**M**aalako jaiak aurten egun bakarreko egitaraua izango dute. Hala ere, kutsu berezia emango diete uztailaren 23an parkeari, festen antolatzaileek Blues gaua prestatu baitute ordurako.

Kontzertua arratsaldean hasiko da, 20:30ean, Virginia Maestroren saioarekin. Abeslari eta konposatzaile hau ezaguna da *Operacion triunfo* telebista saioan parte hartu zuelako. Bere *Blue bird* azken lanean country doinuak dira nagusi hainbat neo-soul ñabardurekin, baina bere emanaldian popetik hasi eta bluesera arteko doinuak entzuteko aukera izango da.

### Gauerditik aurrera ere

White Towels Blues Band taldea izango da hurrengo jendaurrean, 22:30ean. Entzuleek gustuko dutena benetako bluesa baldin bada, talde honek



Virginia Maestrok irekiko du kontzertu sorta.

ez du inor epel utziko. Niaren ahotsa musikariekin uztartuz oinarri erritmiko sendoa duen taldeak Chicagoko south sideko kutsua ekarriko du Maalara.

Velma Powell & Bluedays taldearen txanda 00:00etan izango da. Ibilbide

luzeko talde honen soinuan Texasko doinuak dira nagusi, dotoretasun majikoa eta oinarri erritmiko sendoa bateratuz sortutakoak. Rhythm & Blues-a, dantzarako gogoia edozeini eman diezaioketenak.

## J.J. Vaquero umoregile ezagunak bakarrizketa eskainiko du, Herriko Antzokian, Alex Ravanalekin



Vaquero eta Ravanal umoregileak.

Uztailaren 22 gauean Herriko Antzokia umorez jantziko da. 20:30ean igoko da J.J. Vaquero umoregile ezaguna oholza gainera. Aktore, komiko eta gidoilari honek makina bat txoko pasatu ditu jendeari barre egin araziz. Baina benetan ezagun egin dute *Paramount Comedy* telebista katean eskainitako saioek. Telebista programetan parte hartzeaz gain, webgunerako ere grabatu ditu hainbat bakarrizketa eta irratian ere aritua da. Gaur egun, bere umore saioak antzokietan eskaintzen ditu eta Antena 3 telebista kateko *El Hormiguero* saioko gidoilari eta kolaboratzailea ere bada. Bakarrizketetan bizitzari begiratzeko bere modu berezia erakutsiko du, zuzena eta barre algarak eragiten dituen.

### Sarrerak salgai

Vaquerorekin arituko da Alex Rabanal lazkaorra, aurrez ere berarekin ikuskizunak egindakoa, baita Elgoibarren ere. Bakarrizketa lehiaketa batean hasi eta bere umorea beste hainbat lekutan erakutsi du, baita *El club de la comedia* lehiaketan ere.

Ikuskizunerako sarrerak aurrez eros daitezke 10 euroan Tantaka eta Lanbroa tabernetan edo edo Ibai-Ondo erretegian. Soberan izanez gero Herriko Antzokiko lehiatilan ipiniko dituzte salgai, 15 euroren truke.

## Nora Kortaberria final zortzirenetaraino heldu da Munduko Eskubaloi Txapelketan



Junior mailako Munduko Eskubaloi Txapelketa jokatu du Nora Kortaberria elgoibartarrak, Espainiako selekzioarekin, Moskun (Errusia). Multzokako fasea hirugarren postuan amaitu zuen Espainiak, hiru partida irabazi eta bi galdu ostean, eta final zortzirenetako kanporaketan 13-29 galdu zuen Suediaren aurka. Espainiak 11. eta 12. postuak erabakitzeke azken partida jokatu zuen Brasilen aurka, eta 25-33 galdu zuen. Partida guztiak (zazpi) jokatu ditu Nora Kortaberriak eta hamasei gol sartu ditu guztira. Kazakhstango taldearen aurka lortu zuen marrik onena, bost gol sartuta.


## Tenis eta padel txapelketek badituzte irabazleak



40-15 Tenis eta Padel elkarteak antolatutako tenis eta padel txapelketako finalak jokatu zituzten aurreko astean, Mintxetan. Tenisean Agustin Quintana azkoitiarra izan zen irabazlea, finalean Ruben Pinillos gainditu eta gero (6-0 eta 7-6). Padel nesketan Nora Hadi eta Ane Iñiguez elgoibartarrak izan ziren txapeldunak, Bego Muñoz eta Encarni Muñoz ermuaren kontrako finala 6-3 eta 6-4 irabazita. Gizonen padelean, aldez, Alberto Gonzalez eta Jon Etxaide eibartarrak gailendu dira, bigarren urtez jarraian. Finalean Patxi Vallejos eta Juan Luis Etxaniz bergarrei irabazi zieten: 4-6, 6-3 eta 6-4 izan zen azken emaitza.

## Imanol Garaizabalek Europako Raid Txapelketan hartuko du parte

Imanol Garaizabal elgoibartarrak Europako Raid Txapelketan hartuko du parte lau lagunek osatutako taldearekin. Kataluniako Aran haranean jokatu da txapelketa uztailearen 18tik 24ra bitartean. Garaizabal sasoi puntu onean ailegatuko da urte guztia prestatzen aritu den probara. Izan ere, joan den uztailearen 2an Ibaraldea Abentura Raidaren estreinako edizioa irabazi zuen Ibaran, Iparraldeko Raid abentura Ligaren barruan. Garaizabalek orain arte jokatu diren hiru probak irabazi ditu eta sailkapeneko liderra da.



## Debabarreneko II. Raida irailaren 24an

Morkaiko mendi taldeak antolatuta, Debabarreneko II. Orientazio Raida jokatu dute Elgoibarren, irailaren 24an. Debabarreneko Raida Iparraldeko Raid abentura Ligako (LINRA) seigarren proba puntuagarria izango da aurten. Iaz, estreinako edizioan, 37 bikotek hartu zuten parte. Antolatzaileek parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak.



Arg.: Julen Ansola

## Martin Hernandezek Espainiako txapelketa irabazi du 600 metroetan

Mintxeta Atletismo Taldeko Martin Hernandez Beitiak kadete mailako Aire Libreko Espainiako Atletismo Txapelketan hartu zuen parte Granollersen, eta urrezko domina eskuratu zuen 600 metroetako lasterketan. Sekulako marka egin zuen gainera: 1:22.17. Kadete mailako Espainiako errekorretik (1:21.54, Axel Vives) gertu gel ditu zen. Nerea Sasiain elgoibartarrak ere hartu zuen parte, 300 metroetako lasterketan, baina ez zuen finalerako sailkatzea lortu, final-erdietako lasterketan bere marka personala (42.43) ondu bazuen ere.



Arg.: Miguel Romero

## Futbol 7 txapelketako finala, martitzenean

Bailarako 19. Futbol 7 txapelketako finala uztailaren 19an, martitzenean, jokatuko dute Mintxetan. Elgoibarko bi talde ailegatu dira finalera: E.G.S. eta Mas Que Olaso. 20:00etan hasiko da finala.



## Futbol Eskola eguaztenetan izango da

C.D. Elgoibarrek jakinarazi duenez, zabalik dago Futbol Eskolan izena emateko epea. Nabarmendu dutenez, domekatik eguaztenera (17:00etatik 18:30era) pasa dituzte entrenamendu egunak. Era berean, izena emateko kuota 100 euro merkatu dute. Futbol Eskola 2006, 2007 eta 2008an jaiotako neska-mutilei zuzenduta dago. Irailaren 21a izango da izena emateko azken eguna. Uztailean eta irailean CD Elgoibarrek Mintxetan duen bulegoan eman daiteke izena, 18:00etatik 20:00etara. Ordu tarte horretan telefonoz ere eman daiteke izena, 943 741 949 zenbakira deituta. Honako telefono zenbakira deituta ere eman daiteke izena: 675 706 723 (Jon).



## Ainhoa Lendinezek bigarren egin zuen Marimurumendi mendi maratoian



Beasainen hasi eta amaitu ziren iraupen luzeko hiru mendi proba jokatu ziren aurreko asteburuan: Ehunmilak (168 km.), Goierriko Bi Handiak (88 km.) eta Marimurumendi (42 km.). Azken horretan bigarren egin zuen Ainhoa Lendinezek, baina irabazlearen denbora berean (4:40:30). Izan ere, Lendinezek Andrea Garai irabazlearekin besarkatuta gurutzatu zuen helmuga marra, ibilbide osoa elkarrekin egin eta gero. Goierriko Bi Handiak probari dagokionez, berderatzi elgoibartarrak amaitu zuten proba, tartean hiru emakumek (elgoibartarren emaitzak eta argazkiak [barren.eus-en](http://barren.eus-en)). Azkenik, Ehunmilak ultra trail probaren zazpigarren edizioan Elgoibarren lan egiten duen Javi Dominguez gasteiztarra izan zen azkarrena, 23:22:37ko denborarekin. Iban Fernandez elgoibartarrak ere hartu zuen parte, baina erretiratu egin behar izan zuen.

**LANA.....**

**Eskaerak**

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Interna edo orduka. 631 988 471

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. 632 170 255

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, baita interna ere. 631 418 130

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, baita interna ere. 602 123 942

Asteburuetan adineko pertsonak zaintzeko prest nago. 632 229 972

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. 637 966 749

Adineko pertsonak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna lan egiteko ere prest nago. 632 889 041

Adineko pertsonak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 628 738 472

Garbiketa lanetan, zein umeen eta adinekoen zaintzan aritzeko prest nago. 680 037 575

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. 631 353 468

Administratzaile lanetan (ikasketak), bidaia agentzietan (esperientzia) edo dendari lan egiteko prest. 632 480 108

**Eskaintzak**

CD Elgoibarrek fisioterapeuta behar du. 675 706 723

**ETXEBIZITZAK.....**

**Alokairua**

Alokairuko etxebizitza bila gabiltza lau pertsonentzako. Hiru logeekin eta igogailuarekin. Ahal dela Elgoibarko erdigunetik gertu. 671 289 584

**LOKALAK.....**

**Alokairua**

Xagua tarberna dago alokairuan. San Frantzisko kalean. 605 741 485

**BESTELAKOAK.....**

Bikientzako haurkoixe osoa salgai. Egoera onean. Jane Twin Two modeloa. Bi matrix aulki, euritako plastiko guztiak, poltsa... 300€. 676 889 260

Lau metro diametroko sonbrila eta zintzilikatzeko hamaka salgai. Egoera onean daude. 943 531 648

Itsasoa, arrantza, edo-eta urpekaritza gustatzen zaizkion pertsona baten bila nabil Mutrikuko portuan fueraborda bat erdibana erosteko. 669 293 423

Gps Garmin Etrex galdu dut, Karakatekik Berazetara jaisten den BTT bidean. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala telefono zenbaki honetara. 646 225 465

**IRAZABAL**  
clínica dental

**Familiaren Osasuna**  
Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako  
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal | Twitteren: @Clinicairazabal

**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobek: GALTU

**IRAZABAL** clínica dental  
Julian Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**Ainhoa Zulueta**  
Odontóloga  
Aholketak & tratamenduak  
8:00 - 22:00  
Operatuzko ordua  
10:00 - 14:00



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



**Nire komunitatean hogei jabe gaude eta bi merkataritza-lokal. Orain dela gutxi komunitateko aseguruak kontratatzea erabaki dugu, baina merkataritza-lokaletako jabeek uko egin diote dagokiena ordaintzeari. Eraikinaren estatutuen arabera, merkataritza-lokalen jabeek ez dituzte eskailera eta igogailu gastuak ordaindu behar, bai, ordea, faxada eta teilatuko ezohiko konponketei dagozkienak. Ezetz esan diezaiokeite komunitateko aseguru ordaintzeari, beraienarekin kanpo zein barrukoa aseguraturata dutela arrazoituz?**

Erantzukizun zibileko aseguruak etxejabeen komunitatea arriskuetatik babes dezake. Eta derrigoruta legoke hirugarren bati ezohiko funtzionamenduaren ondorioz elementu, zerbitzu edo instalazio komunetan eragindako kalteak ordaintzera. Eraikina hondatuz gero jabe guztiek, lokaletakoek ere, kalte-ordaina jasoko dute.

Aseguru-primak hobari bat du eraikineko bizigarritasun egokiaren beharrezko gastu batentzat, estatutuetan kontratua derrigorrezkoa dela esan ala ez esan. Beraz, legearen arabera eraikineko jabe guztiek, salbuespenik gabe, ordaindu egin beharko dute, baita merkataritza lokalek ere.

Aseguru-polizaren helburua da elementu komunetatik eratorritako erantzukizun zibila babestea, ez norbere jabetza pribatuenak. Izan ere, jabetza partikular bakoitzak bere aseguru kontratatua izango du.

**AHOLKUA: Lokalek derrigorrez ordaindu behar dute aseguru. Ezbehar batek aseguru ordaintzeari uko egin diotenengan eragin kaltegarriarik balu, aseguru-etxea derrigoruta legoke konpontzera eta ezingo luke uko egin babesten duena komunitateari dagokion erantzukizun zibila baita.**

**ROSALBA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Hurrengo zorion-agurren tarte irailaren 2an argitaratuko dugu. Argazkiak abuztuaren 31ko 12:00ak baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Esti-txu**, uztailaren 28an 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiaren partez.




Zorionak! **Naiara Jorge**, Etxeko printzesak abuztuaren 17an, 6 urte! Muxu pila, Elgoibar eta Andoaingo senideak.



Zorionak, **Danel**, bihar 2 urte beteko dituzulako. Familiaren eta bereziki Markel, Unai eta Uxueren partez.



5 urte gure txiki-xak! Zorionak, **Irati**, Patxo haundi-haundi bat etxekoon partez.



Zorionak, **Jon!** Igandean 3 urte! Muxu handi bat danon partez.



Zorionak, **Gal-der!** Uztailaren 17an urtebetzea. 5 urte dagoeneko! Muxu handi bat Eñauten eta familiaren partez.




Zorionak, **Nahia**, asteazkenean 6 urte bete zenituelako. Gurasoen eta bereziki Naroaren partez.



Zorionak, **Mikel**, hurrengo larunbatean 7 urte beteko dituzulako. Etxekoen partez.



Zorionak, **bio!** Zuek bai primerakuak! Txokolatezko muxu asko. Etxekoak.



Zorionak, **Nerea eta Iñaki!** Bihar zuekin ospatzeko desiatzen gaude. Zoriontsu izan abentura berri honetan! Zuen kuadrila.




Zorionak, **Irati eta Maddi**, jarraitu halako xaladak izaten! Patxo handi bana danon partez.



Zorionak, **bikote**. Ondo pasa biharko eguna. Gurasoen eta anai-arreben partetik.



Zorionak, **Uxue eta Unai**, zuen laugarren urtebetetzean, oso ondo pasa genuen! Familia guztiaren partez!



Zorionak, **Terese eta Paul**, uztailaren 21ean eta 23an 6 eta 3 urte egingo dituzuelako. Familia guztiaren eta bereziki Andrearen partez.



Zorionak, **Aiert eta Areneri** uztailaren 26an eta 27an urtetxo bat eta 4 urte egingo dituzuelako. Muxu pila etxeko guztien partez.



Zorionak, **Markel eta Paula!!!** Ondo pasa zuen 8. urtebetetze egunean. Etxeko guztion eta bereziki Lucia eta Vegan partez.



Zorionak, **Intza**, hilaren 30ean 9 urte. Ondo pasa. Muxu bat familiak. Bereziki Malen, Mikel eta Luciaren partez.



Ongi-etorri, **Laida**, gure artera. Maitasunez, lehengusu Alex, Mikel eta Luciaren partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€  
ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio  
www.uzurioptika.com

Uretatik babesteko tapoiak NEURRIRA!  
Babestu zure belarriak

**STOP OTITIS!**

## 15 BARIXAKUA

**18:30-20:30** Odol-ematea. Osasun Zentroan.

**19:00** Mendaroko binakako V. Raketaren txapelketako finala. Pilotalekuan.

**22:30** Aire Libreko Zinema: *En el corazon del mar*. Kalegoen plazan.

## 16 ZAPATUA

**11:00** San Bartolome parrokiara bisita gidatua (Euskaraz). Ate nagusian.

**22:30** Aire Libreko Zinema: *Mortadelo y Filemon contra Jimmy el chondo*. Kalegoen plazan.

## 19 MARTITZENA

**20:00** Kontzertua: Zingaros-New Gypsy Tango. Kultur Etxeko sotoan.

**22:30** Kontzertua Julio Iglesiasen omenez. Txarriduna tabernan. (Hilaren 21ean ere ordu eta toki berean).

## 22 BARIXAKUA

**20:30** Nazioarteko XXX. Folklore Jaialdia. Temuco (Txile); Nkrabea

(Ghana) eta Haritz Euskal Dantzari Taldea (Elgoibar). Olaizaga kiroldegian.

**20:30** Bakarrizketak: J.J. Vaquero eta Alex Rabanal. Antolatzailea: Chistoshows. Herriko Antzokian.

## 23 ZAPATUA

**11:00** San Bartolome parrokiara bisita gidatua (Gaztelaniaz). Ate nagusian.

**22:30** Aire Libreko Zinema: *Sinsajo* 2. Kalegoen plazan.

## 24 DOMEKA

**22:30** Aire Libreko Zinema: *El viaje de Arlo*. Kalegoen plazan.

## 29 BARIXAKUA

**22:30** Aire Libreko Zinema: *Mad Max*. Kalegoen plazan.

## 30 ZAPATUA

**22:30** Aire Libreko Zinema: *Home. Hogar dulce hogar*. Kalegoen plazan.

## MAALAKO JAIK Uztailak 23

**11:00** Azkaratera igoera bizikletaz eta korrika.

**12:00** Meza. Maalako elizan.

**20:30** Blues gaua: Virginia Maestro, White towels blues band eta Velma Powell & Bluedays. Maalako parkean.

## SARGOATEKO ERROMERIA Uztailak 24

**11:00** Meza.

**Ondoren**, salda eta txorizoa banatzea.

**Jarraian**, Baltzola anaiak trikitaliak. German Meabebasterretxea eta Jabier Arrizabala *Ziada* bertsolariak.

**12:30** Trialsin erakustaldia.

## SIGMAKO JAIK Uztailak 24,25

### 24 DOMEKA

**9:00** Txapligu jaurtiketa.

**11:00** Aire libreko marrazki lehiaketa, 16 urte artekoentzat.

**12:30** IgeHoka txapelketa. 14 urtetik behera.

**14:30** Bazkari herrikoia. Frontoian.

**17:00** Mus txapelketa. Elkartean.

**Ondoren**, ustekabea.

**20:30** Parrillada eta musika. Frontoian.

### 26 ASTELEHENA

**10:00** Meza, auzoan hildakoen omenez.

**11:00** Esku-pilota txapelketetako finalak.

**Ondoren**, Nesken pala txapelketetako finala.

**12:00** Luntxa. Frontoian.

**14:00** Pilota eta pala txapelketetako sariak.

**16:30** Umeentzako jolasak: itsulapikoak, sokatira, zaku-karrerak, globoak... Frontoian.

**19:00** Txokolatada. Frontoian.

BENETAKO BIZITZARAKO  
HIPOTEKARIOAK

# EURIBOR + % 0,85

Lehen urteko ITNa: %1,30.

UTBAldakorra: %1,229\*

 **bankoa**  
CREDIT AGRICOLE





## SANTUMOTZ EGUNA

Abuztuak 7

## 7 DOMEKA

**11:30** Meza. Santumotzeko zelaian.

**Gero**, Txorizoa (Imanol Goikotxe harategia).

**Segidan**, Trikitilariak (Unai Andonegi eta Astiazaran II) eta bertsolariak (Peñagarikano eta Mendiluze).

**14:30** Bazkaria. San Pedro jatetxean (30 euro). Izen-ematea: 943 740 010.

**Segidan**, Bertso saioa eta erromeria.

## SALLOBENTE-ERMUARANGO JAIK

Abuztuak 5, 6, 7, 10

## 5 BARIXAKUA

**19:00** Kanpai jotzea eta suziriak, jaien hasiera iragartzeko.

**19:00**, errosarioa eta meza. Auzoko hildakoen alde.

**20:00** Bakailao jana, bereziki auzoko aiton-amonei eskainia.

**Afalostean**, Bertsolariak. Anjel Mari Peñagarikano eta Iker Zubeldia.

**23:00** Bolo saioak.

**23:30** Erromeria. Erromeria taldea.

## 6 ZAPATUA

**16:30** Haurrentzako jolasak, soinu jotzaileek girotuta.

**Ondoren**, Niala magoa.

**Jarraian**, txokolate jana.

**Segidan**, zezentxo eta pottokak.

**23:30** DJ festa, Oihan Vegarekin.

**Gauerdian**, Bolo txapelketa.

\* Mailatik Sallobenterako autobus zerbitzua egongo da, 20:00etatik aurrera.

## 7 DOMEKA

**10:30** Jaieroko elizkizuna

**12:00** Sanlotroia:

- Sallobente-Ermuaranetik Txarridunako errotondara korrika.

- Errotondatik Sallobente-Ermuaranera bizikletaz.

- 3 boloren jaurtiketa. Botatoko txirilo bakoitzeko minutu bat kenduko zaio aurretik egindako denborari. Gehienez, 9 minutu.

Saria: Norberaren pisua + bizikletarena eurotan, emakume zein gizonentzat.

**14:30** Lagunarteko bazkaria.

**18:00** Herri kirolak. Aizkolariak: Mikel Larrañaga eta Eneko Otaño. Harri-jasotzaileak: Jon Unanue *Goenatxo III* eta Xabier Aranburu *Guzta*.

**20:00** Emakumeen bolo txapelketa.

**22:00** Bolo saioak.

**Ondoren**, Erromeria. Laja eta Narbaiza.

## 10 ASTELEHENA

**San Lorentzo Eguna**

**11:00** Meza nagusia. Haritz Dantza Taldearen aurreksua, musikari eta bertsolariekin.

**Ondoren**, salda eta txorizoa.

## AZKUEKO JAIK

Abuztuak 15, 16, 17

## 15 ZAPATUA

**San Roke bezpera**

**17:00** Kanpai jotzea eta suziriak.

**18:30** Errosario santua. Auzoko ermitan.

**19:30** Untxi askatzea.

**Ondoren**, zezentxoak eta pottokak.

**22:00** Erromeria: Mirari eta Agurtzane.

**Jarraian**, Bolo jaurtiketa.

**Bazkariak eta afariak emango dituzte karpan eta elkartean.**

## 16 DOMEKA

**San Roke Eguna**

**9:00** Suziriak.

**11:00** Meza nagusia eta Haritz dantza taldearen erakustaldia. Auzoko ermitan.

**Ondoren**, 1. orga jasotze txapelketa, ez profesionalentzat.

**18:00** Haurrentzako jolasak eta unxi askatzea; eta txokolatea banaketa.

**Segidan**, Zezentxoak eta pottokak.

**22:30** Erromeria, goizaldera arte. Xabier Etxaniz eta Lidia Irigoienekin.

**00:00** Bolo txapelketa

## 17 ASTELEHENA

**San Roke Txiki Eguna**

**9:00** Suziriak.

**11:00** Meza. Auzoko hildakoen alde.

**13:00**, Txapel jaurketa.

**14:00** Bazkaria, Baltzola anaiek girotuta.

**18:30** Idi-dema. Patxi Largarate eta Jose Ramon *Belarreta*.

**Ondoren**, Untxi askatzea.

**Segidan**, Zezentxo eta pottokak.

**22:30** Erromeria. Baltzola anaiek.

**01:00** Errifaren zozketa.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK 09:00 - 22:00

## UZTAILA

15 Barixakua IBAÑEZ  
16 Zapatua BARRENETXEA  
17 Domeka BARRENETXEA  
18 Astelehena ETXEBERRIA  
19 Martitzena FERNANDEZ  
20 Eguaztena YUDEGO  
21 Eguena ORUESAGASTI  
22 Barixakua BARRENETXEA  
23 Zapatua IBAÑEZ  
23 Zapatua YUDEGO (9:00-14:00)  
24 Domeka IBAÑEZ  
25 Astelehena YUDEGO  
26 Martitzena ETXEBERRIA  
27 Eguaztena FERNANDEZ  
28 Eguena YUDEGO  
29 Barixakua ORUESAGASTI  
30 Zapatua GARITAONANDIA  
31 Domeka GARITAONANDIA

## ABUZTUA

1 Astelehena IBAÑEZ  
2 Martitzena YUDEGO  
3 Eguaztena BARRENETXEA  
4 Eguena FERNANDEZ  
5 Barixakua YUDEGO  
6 Zapatua BARRENETXEA  
7 Domeka BARRENETXEA  
8 Astelehena BARRENETXEA  
9 Martitzena IBAÑEZ  
10 Eguaztena YUDEGO  
11 Eguena BARRENETXEA  
12 Barixakua FERNANDEZ  
13 Zapatua YUDEGO  
14 Domeka YUDEGO  
15 Astelehena ORUESAGASTI  
16 Martitzena ETXEBERRIA  
17 Eguaztena IBAÑEZ  
18 Eguena ETXEBERRIA  
19 Barixakua GARITAONAN.

20 Zapatua FERNANDEZ  
20 Zapatua ETXEBERRIA (9:00-14:00)  
21 Domeka FERNANDEZ  
22 Astelehena GARITAONAN.  
23 Martitzena ETXEBERRIA  
24 Eguaztena ORUESAGASTI  
25 Eguena IBAÑEZ  
26 Barixakua GARITAONAN.  
27 Zapatua ETXEBERRIA  
28 Domeka ETXEBERRIA  
29 Astelehena FERNANDEZ  
30 Martitzena GARITAONAN.  
31 Eguaztena ORUESAGASTI

## IRAILA

1 Eguena ETXEBERRIA  
2 Barixakua IBAÑEZ

## GUARDIAK 22:00 - 24:00

Astelehenetik domekara  
ETXEBERRIA (Elgoibar)  
Santa Ana, 1  
943 740 140

## 00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)  
Fermin Calbeton, 19  
943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza  
4, Garagartza (Mendaro)  
Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
(Soraluze) Tel.: 943 751 384



Julen Ansola



Eider Iriondo

*Pozik nago,  
uda iritsi da.*

*Bart ganean jaia izan dugu,  
Sua zen protagonista.  
Izarrez beteriko zerua eta ilargi betea.  
Urteko gaurik luzeena.*

*Ni eta zu etzanda, zeruari begira  
gure azala lurrari itsatsirik  
eta bion eskuak elkarren gorputzak laztanduz  
gorputzak gorputzen kontra urratzen zirela  
itxi zitzaizkigun begiak.*

*Eguna argitzean,  
itsasertzean dabilzan kaioen zaratek  
esnatu gaituzte.*

*Itsaso zabala aurrez-aurre  
Zure bizkarrezurra agerian  
Ertz zorrotzak daukazu.*

*Gauetik goizerako aldaketak nabari dira.  
Lurraren usaina aldatu da,  
eta orain ez gaude bakarrik.  
Orain haizerik gabeko zerua dugu  
eta badator jende andana eguzki gosea asetzera.  
Guk zure lurraren usaina daramagu soinean,*

*eta bagoaz zure ondotik.*

*Desiatua zara askorentzat eta guretzat.  
Guk nahiago zaitugu hutsik eta  
desio horren bila jarraituko dugu.*

*Laster joango gara berriz ere zure lurra besarkatzera.*

***“Itsasertzean dabilzan kaioen zaratek esnatu gaituzte”***

# LAN DEIALDIA


- Elektronika-elektzitatean espezialista behar du metal ez ferrikoen injekzio enpresa batek, automozio sektorean presentzia garrantzitsua duenak, mantentze-departamentuan jarduteko. Gutxieneko esperientzia: bi urte.

- Bereziki kontuan hartuko dira titulazioak eta PLC automaten programazioko ezagutzak, hidraulika eta mekanika alorreko ezagutza orokorrez gain.

- Ingurukoa izatea hartuko da kontuan.

Bidali curriculumak [enekis@hotmail.com](mailto:enekis@hotmail.com)

**A. Garate**  
Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua  
angelingarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar  
**610 226 651**



## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Errosario 7 - Elgoibar  
Tel.: 943 743 679  
[errosario7@gmail.com](mailto:errosario7@gmail.com)

**ERROSARIO HAGIN KLINIKA**  
Garazi Sampedro Arando  
est. 965 C0DG

Larrialdietarako tel.: 688 715 647

**ABUZTUAN ERE ZABALIK**

- Abuztuak 1, 3, 4, 5  
15:00etatik 18:00etara.
- Abuztuak 2  
10:00etatik 17:00etara.
- Abuztuak 8, 9, 29, 30, 31  
10:00etatik 14:00etara.
- Abuztuaren 10etik 28ra bitartean ibita.

**Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!**

**Eskertzak eta urteurrenak** Kalebarren plaza, 2 - Tel: 943 744 112



## Aldo Galarraga Arostegui

2016ko uztailaren 12an hil zen, 69 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Jose Manuel Juaristi Alkorta

2016ko uztailaren 7an hil zen, 62 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





HARITZ E.D.T.

# ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXX. FOLKLORE JAIALDIA

*TXILE - TEMUCO*

*HEGO AFRIKA - THEMBA NJILO*

*HARITZ EDT - EUSKAL HERRIA*

2016ko uztailaren 22an, ostirala Olaizaga Kiroldegian

**20:30ean, ordutegi berria**

